

## Jarraitu Bermeoko mapan ondoko ibilbidea (Baserriak argazkietan begiratu, leku-izenak liburuan aztertu, bide alternatiboak sartu, ...):

(Irakaslearentzat oharra: hasierako pausu batean, mapan ibilbidea ikusiz ahozko azalpena jarraitzea komeniko litzateke. Bigarren batean, berriz, parajeak mutututa baina baserri-izenak agerian utzita ibilbidea markatzea.)

Sanjuanportaletik abiatzen gara Bakioko errepidea (Sanjuanbidea) hartuz. Sagrado Corazon ikastetxea eskuinaldean utziz eta Ormabarrietatik gora eginez, futbol zelaiaren eta Mendiluzeko hilerriaren hegoaldean igarotzen gara. Bidebarrieta izeneko parajetik pasatzean, Institutua lehenago eta Itsasgane eta Grandene baserriak gero, uzten ditugu gure eskuinean. Horren ostean, ikuspegi eder bat ageri zaigu ipar aldetik: Peña de Oroko haitzak dira. Errepidea jarraituz gorantz, ezkerrean, Txankane baserria lehenago eta, kiroldegira egiten duen bidearen kontra, geroxeago, Etxebarri izeneko ageri zaigu.

Azken etxe hau gaur Eleizalde ikastolaren eraikina da. Patxotene baserria daukagu orain ezkerretik eta, eskuinetik, lurra eusten duen hormaren gainetik dagoen eremuari Uriatziti esaten zaio. Azatarrotxu, Etxerre eta beste etxe batzuetara doan bidea atzean utziz, errepidean gora goaz Arane baserrira heldu arte. Hemen, bide nagusia utzi eta ezkerretik gorantz doana hartzen dugu. Aranburu baserriaren azpitik pasatzen den aldatz gogorra egin eta Flores baserrira iristen gara. Hemen bidea leunagoa da. Aurrera egin eta Iturrondo baserriaren atzealdetik Beitegira abiatzen den bidea hartzen dugu. Baserrira jo beharrean, justu bertara heldu baino lehen, eskuinetik doan bidea jarraitzen dugu. Beherantz goaz Pedrualde izeneko parajetik zehar Telleriara iritsi arte. Inguru honetan Arbaltzetik behera datorren erreka gurutzatzen dugu jarraian Abortaga baserrira jotzeko. Baserri hau eta bere atzealdetik jaisten den erreka igaro ondoren Agirre auzora pasatzen gara. Auzo honetan aurkitzen dugun lehen baserria Pedru izeneko da. Bidean aurrera eginda, auzoko bide nagusiarekin egiten dugu topo.

Orain eskuinerantz, gorantz, egiten dugu Pellune baserri ondolik eginez. Sagargane izeneko paraje honetan aldatz gora goazela, laster aurkitzen dugun ezkerretik beherantz jaisten den bidexka bat hartzen dugu. Berehala iristen gara Etxebarrimotzene baserrira. Bere eskuinaldetik pasatu eta berriro asfaltozko bide batera heltzen gara. Beherantz jarraituz Errotatxu baserri inguruan, Urubi erreka zeharkatzen dugu eta horrela, San Migel auzora pasatzen gara. Bidean gora eginez, Bilbobidea jotzen dugu. Errepidea zeharkatuz, aurre-aurrean dagoen bidetik egin eta aldapa gora goazela berehala ageri da eskuinera egiten duen bidexka bat; hura hartu eta Ponpa izeneko parajetik Azeretxo eta Beasko baserrietara egiten dugu. Bien artetik pasatu eta Beaskoren atari aurretik jaisten den bidetik behera egiten dugu. Baserotik zehar Etxebarrierreka baserrietara jotzen dugu; Baserrien izen bera duen erreka igaro eta San Andres auzoan sartzen gara. Bidean aurrera eginez, Emaldi izeneko parajea San Andres auzoko bide nagusiarekin egiten dugu topo. Gorantz doan eskuineko bidea hartuz Bidetxe baserria eskuinean utzi eta ezkerretara dugun Etxebarrilanda baserriaren atzealdetik beherantz jarraitzen dugu.

Bideak laster hartzen du aurbehera handia. Elizbiden gaude, errekan behera, ezkerrean egingo bagenu, Almikara igotzeko zubitxo aurkituko genuke. Baina ez, errekan gora egiten dugu, eskuinera. Inguru honetan errekaldeko baso ederra dago, haltzez eta urritzez hornitua. Goitik behera datozen bi erreka elkartzan diren unean pasatzen gara beste aldera, hau da, Almika aldera eta bidean gora egiten dugu. Gora eta gora eginez, laster iristen gara Txindurtza baserrira eta, hortaz, Almikako zelaira bertara.